



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/09/20

Bizkaiko Politika Orokorreko osoko bilkurea irailaren 27an, egingo da Gernikan

Bizkaiko Batzar Nagusiek Politika Orokorreko X. Legealdiko bigarren osokoa egingo dabe Aldundiak berak eskatuta. Ana Otadui Batzar Nagusietako presidentek proposamena Mahaiko eta Bozeroaleen Batzordeko kideei jakinarazo ostean, presidentek Gernikako Batzarretxean egingo dan osoko bilkurara deitu ditu Lurraldeko 51 ordezkariak. Saioa, Unai Rementeria Bizkaiko Foru Aldundiaren buru moduan egiten ari dan kudeaketaren eta gobernu ekintzaren etorkizuneko orientabide politikoaren ingurukoa izango da.

Saioa, aurreko legealdietan Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren Adierazpen Publikoa izena hartzen ebenagaz hasiko da. Bere azalpenerako ordu biko epea izango dauen Rementeriarene berben ostean, Batzarretako talde guztiek, ordubeteko atsedenaldea eta gero, gehienez be 30 minutuko tartea izango dabe, Bizkaiko Aldundiko arduradunari erantzuteko, igaz onetsi zan Batzarretako arautegi barriak adierazoten dauen moduan.

Eztabaidak Ahaldun Nagusiaren erantzunagaz jarraituko dau eta, horren ostean, Batzarretako taldeek barriro hartu ahal izango dabe parte, ordezkaritza txikiena daukientetik handiena daukientara (Talde Mistoa, Bizkaiko Popularrak, Podemos Bizkaia, Euskal Sozialistak, EH Bildu eta Euzko Abertzaleak). Bakotxak 10 minutu izango ditu Rementeriarari erantzuteko.

Eztabaidea amaitu eta gero, sei taldeek 48 orduko epea izango dabe, urriaren 4eko goizeko 10:00etatik aurrera eztabaidatuko diran ebazpenerako proposamenak aurkezteko. Mahaiak, eztabaidaren xedeagaz bat datozen ebazpenerako proposamenak onetsiko ditu tramiterako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
20/09/2017

El pleno de Política General de Bizkaia se celebrará el miércoles 27 en Gernika

Las Juntas Generales de Bizkaia celebrarán el día 27 el segundo pleno de Política General de la X legislatura. A petición de la propia Diputación, y tras comunicar la presidenta de las Juntas Generales, Ana Otadui, la propuesta a los miembros de la Mesa y Junta de Portavoces, ésta ha convocado a los 51 representantes del Territorio a una sesión plenaria en la Casa de Juntas de Gernika que girará en torno a la gestión de Unai Rementeria al frente de la Diputación Foral de Bizkaia y a la orientación política futura de la acción de gobierno.

La sesión arrancará con lo que en legislaturas pasadas se venía a denominar la Declaración Pública del Diputado General de Bizkaia. Tras las palabras de Rementeria, quien tendrá una limitación de tiempo de dos horas en su exposición, los seis grupos junteros dispondrán, después de un receso de una hora, de un turno máximo de 30 minutos para responder al máximo responsable del Ejecutivo vizcaíno, como marca el reglamento de la Cámara.

El debate continuará con la réplica del Diputado General, y, seguidamente, los grupos junteros intervendrán de nuevo, de menor a mayor representatividad (Mixto, Popular Vizcaíno, Podemos Bizkaia, Socialistas Vascos, EH Bildu y Nacionalistas Vascos). Estos contarán con 10 minutos para responder a Rementeria.

Concluido el debate, los seis grupos dispondrán de un plazo de 48 horas para presentar Propuestas de Resolución que serán debatidas a partir de las 10 horas del 4 de octubre en otro pleno. La Mesa admitirá a trámite las iniciativas que sean congruentes con la materia objeto del debate.